

1. AURRETIKO GAJETATIK ATERATAKO EKARPENAK (Iguripenak, Getxorako eta HAPOrako nahi dutena)

ID	1. Prozesuaz zer espero duzu?	2. Zer nahi duzu Getxorako eta zer premia bete behar ditu HAPOk?
1	Loteslea izatea, 3. sektorea (1.a?) kontuan hartzea. Lurzoruaren Legea berriz planteatzea.	Ekonomia- eta ingurumen-eramangarritasuna, landa-lurzorua blindatzea.
2	Iguripen asko dauzkate, partaide batzuk arazoez hitz egiteko joera duten arren.	Bizitzeko egokia eta eramangarria izatea eta familien etorkizun ekonomikoa ziurtatzea.
3	Premiez jabetzea eta premia horiek aintzat hartzea. Biztanle guztien premiak kontuan hartzea (haurrenak, adinduenak...).	Bizigarritasuna, eramangarritasuna, ingurumen aldetik hirigintza hobetzea, mugikortasuna eta ekologian eta energia-aurrezpenean oinarritutako plan ekonomikoa.
4	Arlo guztien gaineko informazio guztia lortzea eta argia izatea. Lana eta familia uztartzeari, aisiari eta abarri buruzko informazioa.	Garapen eta hazkunde eramangarria eta tokian tokikoa. Herritarrei ematea lehentasuna, eta ez turistei.
5	Herritarren premiak aintzat hartzea eta ahalik eta ikusmolde gehien edukitzea. Herritarrek, parte hartuz gero, herria eta gizartea zaintzen eta errespetatzen dituzte.	Orain arte baliatutako hazkunde-estrategietan inbertitzea. HAPOk ez ditu etorkizuneko belaunaldien premiak arriskuan jarri behar. Paradigma-aldaketa islatu beharko luke (kantitatetik kalitatera, lehiaketatik elkarlanera).
6	Plan Orokorreko ideiak errespetatzea. Ikuspegi orokorra edukitzea, mikro (tokiko) eskalara heltzeko.	Herritarren eta Getxoko hiriaren gaineko azterlan sakon eta zehatza egitea. Getxo kanpoko familiak hartu eta bertakoak kanporatzen dituen hiria ez izatea. Aurreko bizi-kalitatea berreskuratzea. Eraikinak zentzuz egitea. Herritarrak eta Getxoren historia aintzat hartzea.
7	Herritarren kezkei jaramon egitea. Herritarren iritziak kontuan hartzea, batik bat gehiengoarenak.	Berdeguneak babestea eta gutxi eraikitzea, hiri-eremuetan bakarrik.
8	Hiria orekaz eta zentzuz garatzea.	HAPO udalerraren bidai orria izatea eta hirigintzan espekulazioa eta permisibitatea desagerraraztea.
9	Hirigintza-proiektu erakargarri, orekatu eta eramangarriarekin bateragarriak diren etxebizitzak dauzkaten Getxoko biztanle guztien premiak eta kezkak aintzat hartzea, Andra Marikoenak barne.	1. Getxoko biztanleen etxebizitza-beharrari erantzutea. 2. Jarduera ekonomiko nahikoa sortzea. 3. Hirigintza-proiektuek biodibertsitatea, ekosistemak eta landare- eta animalia-aberastasuna errespetatzea.
10	Auzoa eta Getxo zaintzeko eta hobetzeko ikuspegia babestea.	Hirigintza-ildoak, paseatzeko eremuak, monumentuak... zaintzea.
11	Ez dakit argi eta garbi zeintzuk diren Lantaldearen eskuduntzak eta erabakitzeke ahalmena.	Oraingo eta geroko premiak. Barruko kontsumoa sustatzea eta herriari bizia ematea.
12	Kezkak eta proposamenak kontuan hartzea.	Herritarren premiak aintzat hartzea, hobetzeko bizi-kalitatea, ingurumen-eramangarritasuna (berdeguneak, landa-eremuak, kostako akuiferoak eta abar modu eramangarrian gestionatzea), gizartea (biztanle guztientzako balioa sortzea, adina, nazionalitatea, egoera fisikoa eta abar direnak direlakoak), eta ekonomia (aberastasuna eta enplegua sortzea).
13	Ordutegia malguagoa izatea.	Inguruari egokitzea.
14	Hasiera batean, denak.	HAPOk Getxon eskura dagoen lurzuaren etorkizuneko erabilerak arautu behar ditu, eramangarritasuna oinarritzat hartuta eta epe luzera, betiere biztanleen sentsibilitatea anitza dela aintzat hartuta.

ID	1. Prozesuaz zer espero duzu?	2. Zer nahi duzu Getxorako eta zer premia bete behar ditu HAPOk?
15	Herritarren esperientzia, iritzi eta premiak kontua hartzea.	Etxebizitza eta merkataritza premiak Ibarbengoako geltokiaren eta Azkorriko berdeguneen inguruan kokatzea. Bidegorrien sarea osatzea eta Errotatxuko industrialdea hornitzea. Getxo turismo-erakargarri gisa sendotzea.
16	Andra Marin eragindako gizarte-sektoreek ordezkariek edukitzea.	Proiektu txarrak gelditzea eta atzera botatzea (golfa, Ibengoako metro-geltokia...). Pertsonak eta ekologia aintzat hartzea, hirigintza basatia saihestea.
17	Benetan partizipatiboa izatea eta lantzeko gaiak partaideek aukeratzea. Ideiak egoki jasotzea eta ahalik eta ondoen aintzat hartzea.	Getxo gazteentzat eta etorkizuneko belaunaldientzat bizitzeko modukoa izatea (adibidez: etxebizitza sozialak, errenta...). Ezinbestekoa da bidegorriak, berdeguneak, kirol-eremuak, mugikortasuna (eramangarria) eta 3. sektorea (1.a?) hobetzea.
18	HAPO eta etorkizunerako aurreikuspenak zertan diren jakitera ematea eta elkarlanean aritu ahal izatea.	Hiria ondo antolatzea, hedabide egokiak eta berdeguneak jartzea eta etxebizitzak arrazoizko prezioan saltzea.
19	Ingurumena hobetzea, guztientzako eta guztien artean, gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik.	Ondare naturala hobetzea (aire garbia, ura, e.a.), ongizateari eusteko. Aztarna ekologikoa gutxitzea eta guztientzako hobekuntzak egitea. Kultura eta paisaia hobetzea.
20	Merkataritza eta enpresak kontuan hartzea.	Eragile ekonomikoa izatea, ondo antolatuta, negozioetarako eremu zehatzekin.
21	Asko. Aurrena, planak egiteko prozesua ulertzea; eta gero, ekarpenak egitea, nire prestakuntza eta lanbidea kontuan hartuta.	Udalerraren errealitateari eta arazoei (etxebizitza, enplegua...) erantzutea eta, horretarako, herritarra izatea ardatza.
22	Nire ikuspegia ematea.	Herri-nortasuna errespetatzea: aspaldikoa dena, hirigintza...
23	Ikuspegiak eta ekarpenak kontuan hartzea.	Hiritarra, berdea eta komertziala izatea, hiru alderdiak orekatuta.
24	Partaidetza eraginkorra eta kuantifikagarria izatea.	Arlo hauetako arazoak konpontzea: segurtasuna, osasuna, mugikortasuna, bazterkeria, ingurumena... Kantitatearen aldean kalitatea lehenestea.
25	Benetakoa izatea, informatzeko bakarrik ez erabiltzea.	Herritarrei erantzutea eta arazoak konpontzea (biztanleriaren zahartzea eta gazteen ihesa, etxebizitza-parkea gestionatzea, jarduera ekonomikoa).
26	HAPOn modu aktiboan parte hartzea, kezkak ulertzea, Getxo hobetzea, Getxo ahalik eta alderdi gehienetan hobetzea.	Herritar guztien eskariei erantzutea (etxebizitza, enplegua, irisgarritasuna, azpiegiturak, segurtasuna, e.a.).
27	Herritar anitzek parte hartzea eta askotariko ordezkariek edukitzea.	Lurzoru-moten erabilera (hiri-lurzoruena...) askotarikoa izatea eta hobeto banatzea. Hiriaren masifikazioari erantzun behar dio.
28	Eramangarritasun-irizpideekin gauzatzea.	HAPOk etxebizitza-premia eta lurzoru-eskasia uztartu behar ditu. Hiri trinkoa.
29	Emandako ideiekin prozesua aberastea.	Dagoen moduan jarraitzea.
30	Aberasgarria eta arina izatea eta banakoen eskariak errespetuz tratatzea.	Iragana, oraina eta etorkizuna orekaz uztartzea.
31	Anitza izatea eta askotariko jakintzak partekatzea, prozesua baliagarria izan dadin.	Hiri modernoa izatea, baina kontuan hartuta iragana, biztanleak eta haien arazoak. Hiri bizi, eramangarri, produktibo eta erroduna izatea.
32	HAPOn ahalik eta jende gehienak parte hartzea eta adostasuna ahalik eta handiena izatea.	Hirigintza-erabilera eta ingurumen-eramangarritasuna uztartzea. Biztanle-gune berrietan auzoko merkataritzaren aldeko apustua egitea. Arazo nagusiak: garraioa, zirkulazioa eta aparkalekuak.
33	Gardentasuna eta ikaskuntza hirigintza-gaietan. Herritar, ordezkariek eta teknikarien kezkak ezagutzea.	Udalerrri polit, atsegin, bidezko eta demokratikoa izatea hirigintza, gizarte eta kultura arloetan.

ID	1. Prozesuaz zer espero duzu?	2. Zer nahi duzu Getxorako eta zer premia bete behar ditu HAPOk?
34	Eraginkorra izatea.	Atsegina eta bizitzeko modukoa izatea, eta zona batzuetan eraikinak ez pilatzea, erasoa dirudielako. Areetako kale batzuetan espaloiak oso estuak dira.
35	Denbora ez galtzea. Hautatu gabekoen ahotsa ere jasotzea: gure etorkizuna korbatadun-talde batek erabaki ez dezan lortzea.	Kontzertu, azoka eta ospakizunetarako egitura sendoak edukitzea, irekiak eta estaliak. Segurtasun-kamerarik gabeko txokoak egotea. Getxoko landa-kultura, artea eta historia zaintzea. Biztanleen gabezia eta kalteei erantzutea.
36	Asko espero dut, askotariko jendea dagoelako; datozen urteetarako balio dezakeen HAPO bat egin dezakegu.	Etorkizun hobea, eramangarria eta bizitzeko modukoa. Hamar urtean Getxo orain baino hobea izatea.
37	Lantaldearen iritziak ez ezik gainerako herritarrenak ere kontuan hartzea. Ez manipulatzeko. Gardentasuna.	Ingurunea eta gaur egungo etxebizitzak errespetatzea. Hirigintza eskudra eta kartaboez ez lantzea, hau da, gauza politikak pentsatzeko ahalegina egitea, dagoena oinarri hartuta eta edertuta: estratak, baserriak, xarmadun lekuak...
38	Herritarrak eta auzoetako dinamizatzaileak aintzat hartzea.	Andra Marin lehen sektorea sustatzea. Getxo elikagai aldetik burujabe izatea berriz. Lurrari arnasa hartzen uztea. Interes ekonomiko eta politikoak alde batera uztea eta herritarren interesak lehenestea.
39	Partaide guztiek prozesua amaitu arte iraungo dutenaren zalantzak dauzkat.	Leku berde eta garbiak. Baina, non biziko gara gu eta gure seme-alabak?, eta non egingo dugu lan? Leku berdeek bakarrik ez dute ez enpresarik ez aberastasunik sortzen. HAPOk bi gai horiek koordinatu behar ditu eta uztartu egin behar direla irizten diotenek esaten dutena entzun.
40	Nahi duten guztiek parte hartzea.	Getxo guztiontzako hiria izatea. Benetako premiei erantzutea: eramangarritasuna, etxebizitza, partaidetza, kultura...
41	Modu aktiboan parte hartzea, talde interesgarri batean, prestatutako jendearekin.	Seme-alabek errenta ordaindu ezin dutelako alde egin beharrik ez izatea. Aparkatzeko tokiak eta berdeguneak. Etxebizitzak behar al ditugu? Gorpil-aulkian ibiltzen direnentzako irisgarritasuna eta haurrentzako jolas-parkeak.
42	Logika urbanistikoa aldatzeko aukera.	Berdegune gehiago eta kotxe gutxiago.
43	Jarduera batzuk zergatik egiten diren ulertzea eta bizilagun gisa nire ikuspegia azaltzea.	Getxon bizi naizela harro esatea. Arazoak: belaunaldi berriek eta kolektibo gutxiagotuek etxebizitza eskura izatea, eta gure bereizgarri diren berdeguneei eustea.
44	Benetako partaidetza-prozesua izatea.	Herriaren (ez hiriaren) jatorriaren, idiosinkrasiaren eta auzoen gaineko hausnarketa egitea. Aztertzea nola asetzen ziren biztanleen premiak garapen neurritsuagoarekin. Garapen planifikatuaren gaineko konfiantza-krisiak balio behar du aldaketak egiteko eta etorkizun benetan eramangarriarako bidea hartzeko.
45	Parte hartzea bakarrik nahikoa da.	Balio erantsidun industria, zerbitzu, ikerkuntza eta antzeko sektoreetarako lurzoru falta konpontzea, tokiko ekonomia sustatzeko. Lur-jabe gutxi batzuen premiei baino, biztanleen gehiengoaren premiei erantzutea.

ID	1. Prozesuaz zer espero duzu?	2. Zer nahi duzu Getxorako eta zer premia bete behar ditu HAPOk?
46	Trantsizio demografikoaren, eramangarritasunarekin zerikusia duen krisi ekonomikoaren eta hirigintza-plangintzak egiteko moduaren erronkak planteatzea.	Behera egiten ari den biztanleriari erantzutea; izan ere, piramidea buelta emanda dago, biztanleria zahartzen ari da eta gazteak langabe daude. Elikadura-burujabetzarako pausoak ematen hastea. Petrolioaren agortzen ari dela eta sortzen diren arazoak konpontzea, energia aurreztuz.
47	Partaideak askotarikoak direnez, ekarpen interesgarriak egin ditzakegu.	Atsegina. Getxo bizi-kalitate handienetako bat duen udalerrria da. Garapen eramangarri eta txukuna.
48	Asko espero dut. Ondo antolatuta dago. Alderdikoak ez bagara eta interes partikularrei begiratzen ez badiegu, oso probetxugarria izan daiteke.	Bizia izatea eta Bilboko lo-hiri ez bihurtzea. Etxebizitzak gazteek eskuratzeko moduan jartzea, betiere dauden berdegune eskasak errespetatuta. Itsasoari begira jartzea, bizkar eman orde.
49	Partaidetza-prozesua, eztabaida egiteko izateaz gain, erabakitzailea ere izatea (erabakitzeko parte hartzea).	HAPOk ekonomia aldetik bideragarria, ingurumen aldetik eramangarria eta gizarte aldetik integratzailea izan behar du. Gainera, osasun-eraginak ere kontuan hartu behar ditu, positiboak direnak indartzeko eta negatiboak gutxitzeko.
50	HAPOn Getxoko herritarren nahiak jasotzea, ez hiriko eta Bizkaiko politikariarenak.	Arazoak LPParen ondorioak dira eta herriari ez zaio arazo horien gaineko kontsultarik egin.
51	Zer hiri-mota nahi dugun adostu ahal izatea eta etxebizitza, mugikortasun, enplegu eta zahartze arazoak konpontzeko ingurumen-eramangarritasuna kontuan hartzea.	Lana, norberaren bizitza eta harreman sozialak uztartu ahal izateko moduko hiria izatea eta ingurua zentzuz eta modu eramangarrian gestionatzea. Arazoak: etxebizitza, eramangarritasuna, mugikortasuna, lanerako espazioak, udalerrriaren historia ez errespetatzea.
52	Hamarrekoa.	Guztion artean onena.
53	Bikain.	Guztion artean hiria hobetzen saiatzea.
54	Herritarren partaidetza benetakoa izatea.	Eraikitzen hasi aurretik libre dauden etxebizitzak ikustea, saltzeko edo errentan jartzeko.
55	Prozesua hasi besterik nola ez den egin, eszeptiko samarra naiz. Dena den, espero dut kezka eta proposamen guztiak ezagutzea; kezka eta proposamen horiei forma legal eta betearazlea ematea; eta jakitea zer proposatu den eta zer onartu den eta zergatik.	Hazteari uztea. Getxon 100.000 biztanle baino gehiago ez egotea. Biztanle-gune konplikatua arintzea, haurrak eta adinduak lasai ibil daitezten. Gehiegi betetako lekuetan espazioak berreskuratzea. Udala gune horietan eredu izatea eta eraikin neurrigabeak ez egitea. Hiritartu gabeko zonek landa-izaera berreskuratzea. Hiria herritarrak bizitzeko prestatzea, eta ez ibilgailuentzako; eta, betiere, higiezinekin ez espekulatzea.
56	Ezin dut oraindik iritzirik eman, denbora gehiago behar dut. Izan ere, Erromoko Kultur Etxea eraikitzearen kontra protesta egin zuten bizilagunekin gertatutakoa gertatzen bada, ez dut asko espero, itxurakeria hutsa izan zelako.	Zementurik gabe eta hiritartu gabe dauden natura-eremuak ahal bezainbeste babestea. Getxoko hiriaren aberastasuna eta bereizgarria natura da. Plan Orokorra dagoen nekazaritza- eta abeltzaintza-eremu bakarra babestu behar du eta nekazaritza-enpresa txikiak garatzea sustatu, gazte-jendeak enpresa horietan lan egin dezan.
57	Nire iritziz, Lantaldeko kideen proposamenak kontuan hartuko dira, baina ez dira erabakitzaileak izango. Espero dut proposamen horiek plan berria aberastea.	Erronka nagusia da hiritartu gabe dagoen lurra gestionatzea. Hazkunde-aurreikuspenak aztertu behar dira eta jarrera malgua eduki behar da, garai guztiei egokitu ahal izateko.

ID	1. Prozesuaz zer espero duzu?	2. Zer nahi duzu Getxorako eta zer premia bete behar ditu HAPOk?
58	HAPO berriak Getxoko biztanleen interesei erantzutea, ugariak eta askotarikoak baitira. Taldean hartzen diren erabakiek eta adosten diren lan-ildoek gero Udalaren erabakietan eragina izatea.	Lantaldearen interesei modu eramangarrian erantzutea: landa-eremuak, etxebizitza-eremuak, merkataritza, turismoa eta kirol-eremuak. Animalientzako espazioak eta animalien aldeko legeria falta dira. Getxoko biztanle berri asko etorkinak dira eta ezinbestekoa da haien gizarteratzea bermatzea eta ghetto bihurtzen diren guneak ez sortzea.
59	Udalerriko biztanle guztiek prozesuaren berri eta parte hartzeko aukera izatea.	Ez masifikatzea. Ingurumena, herriaren izaera, kultura, paisaia eta hizkuntza errespetatzea.
60	Era honetako prozesu batean parte hartzen dudana lehen aldia denez, asko espero dut.	Hobetzen saiatzea eta gizarte osoaren premiei erantzutea. Nire ustez, Plan Orokor hau aurrera eramaterakoan zona eta pertsona batzuei kalte egingo zaie, guztien ongiaren alde. Sentsibiltate guztiak bateratzen saiatu beharra dago, inor mespretxatuta sentitu ez dadin.
61	Herritarrei HAPOren helmenaren eta aukeren berri ematea eta planaren ahalik eta bertsio onena egitea, betiere partaideen eta eragindakoen artean konpromiso baliagarriak adostuta.	Getxo bizitzen jarraitzeko modukoa izatea, herritarrei familia eta enplegua garatzeko aukera ematea eta bizi-kalitatea hobetzea. Orekatu behar dira etxebizitzaren eta jarduera ekonomikoaren garapena eta natura- eta gizarte-ingurunearen babesa.
62	Partaidetza-prozesu honetan ez daukat batere usterik: Udalaren amarrua da eta mozorroa kentzen saiatuko gara (?).	Eragindako zonetan bizi diren guztiak Lantaldean egotea espero nuen, eta ikusi dut ez daudela.
63	Partaidetza-prozesuak beharrezkoak direla frogatzea. Auzoei hitza ematea, auzoen garapen librean parte har dezaten, eta auzoetan herri-konsulta lotesleak egitea, erabakiak hartzeko.	Hirigintzari dagokionez, ingurumena eta paisaia ez erasotzea, landa-eremuari eustea, etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurrigabeko eraikuntza-eredua ez bultzatzea eta bertako balioak sustatzea, herritarrek errotzeko. Konpondu beharreko arazoak: eramangarritasuna, ekologia, bizi-kalitatea, landa-eremuko balioak eta paisaia-balioak, besteak beste.

2. AURRETIKO GAJETATIK ATERATAKO EKARPENAK (indarrak, aukerak eta ahalmenak)

ID	3. Indarrak/Zer dut gustuko Getxon	3.1. Aukerak	3.2. Getxon gaizki kudeatuta dauden ahalmenak
1	Hiritartu gabeko espazioak.	Etorkizunerako lur emankorrak babestea.	Egoki baliatzen den landa-sektorea.
2			Kirol-portuko gurutzaldi-portua (gaizki kudeatuta dago).
3	Adin guztietako jendearentzako parke berriak.	Herritarren partaidetza.	Turismoa eta merkataritza. Gurutzaldi-portua (Bilboko portu gisa saltzen da).
4	Berdegunak eta kostaldea.	Jarduteko espazioak edukitzea, basakeriarik egin gabe.	
5	Dibertsitatea (hondartza, portua, itsasadarra, mendia) eta espazio paregabeak eta bereziak.	Lasaitasuna, herri eta hiri eskala.	
6	Natura, itsasoa, hondartzak, itsasadarra, zuhaitzak, antzina egin ziren eraikinak (orain ezingo lirakeke egin). Eraldatu gabeko ingurunea, Getxoko iragana...	Eraikinak lehen bezala diseinatzea.	
7	Landa-eremuak, berdeguneak...	Nekazaritza-eremuak sustatzea.	

ID	3. Indarrak/Zer dut gustuko Getxon	3.1. Aukerak	3.2. Getxon gaizki kudeatuta dauden ahalmenak
8	Kostaldea, portu zaharra eta oinetxeen arkitektura. Jendea, jarduerak, elkarrekin...		Hirigintza lehengoratzeari.
9	1. Hobetutako hiri-eremuak (parkeak, bidegorriak...). 2. Kosta, hondartzak, portu eta abarretako aberastasuna.	3. Lurzoru urbanizagarria ingurunea kontuan hartuta garatzea, biodibertsitate eta ekosistema bateragarrien aberastasuna zaintzea eta etxebizitzak eta jarduerak-premiak asetzeari.	
10	Boluntario-elkarrekin, parrokiak, aisia- eta kultura-eremuak, berdeguneak, nekazaritza-eremuak...	Herri-erabilerako monumentu eta espazioak, hirigintza-bolumena eta -kalitatea.	
11	Herri-giroa. Bizi-kalitatea: ingurua, paisaia, merkataritza-jarduerak...	Herriaren eta ingurunearen arteko nahastea errespetatzea.	
12	Kale lasaiak, kosta, premia partikularrei erantzuteko lokalak, ekipamenduak eta abar jartzea...	Mugikortasun eramangarria, herria modu eramangarrian hazteko aukera ematen duelako.	Landa-eremua gutxietsia dago, nahiz eta lanpostuak sor ditzakeen.
13	Etxe zaharrak bereiztea eta errespetatzea.	Parkeak eta pasealekuak.	
14	Udalerriko gizarte-, kultura- eta paisaia-dibertsitatea.		
15	Kokalekua pribilegiatua da eta hirigintza-antolamendua egokia. Hondartzak eta Andra Mariri hiritartzeko dagoen espazioak.	Andra Mariko berdegunea aprobetxatzea.	
16	Kosta, berdeguneak, komunikazioa, nortasuna (galtzen eta aldatzen ari da), kirola egiteko lekuak.		Txalet gehiegi daude. Ez dira eskuratzeko modukoak. Berdeguneak eta zelaiaak galtzen dira. Diruak eta influentziak erabakitzea. Turismoari begira jarritako Getxo artifizial bat sortzea. Makroazpiegiturak (Erromoko Kultur Etxea).
17	Berdeguneak, Andra Mari eta Azkorri, etorkizunean ezer eraiki gabe. Gauzak hobetzea.		Bidegorriak lotuta ez egotea. Garraio eramangarria hobetzea. Kirol-eremuak eta etxebizitzak falta dira.
18	Etxebizitza-dentsitatea zentzuzkoa da.	Areetan gutxi erabiltzen diren berdegune publikoak daude.	
19	Andra Mariko lasaitasuna eta bistak. Berdeguneak, zelaia, kostaldea, natura-eremua, pasealekuak, kultura-ondarea, baserri zaharrak...	Jende asko ibiltzen den aisia-eremuak daude. Daukaguna hobetzea.	Zelaia, nekazaritza eta paisaia babestea eta hobetzea, ongizatea ekartzen dutelako.
20	Natura-eremuak.		
21	Auzoen dibertsitatea. Herritarren dinamismoa. Berdeguneak eta kostaldea. Indarrak: kokapen geografikoa, dibertsitatea...	Prestakuntza-maila handia duten herritarrak, bizi-maila handia eta ahalmen handiko ingurunea.	
22	Jendea, historia, kokalekua.	Turismoa eta bizi-kalitatea.	Berdeguneak aukera asko dituzte.
23	Andra Mariko berdeguneak, Azkorri, haurrentzako jolastokiak, hondartzak eta portu zaharra.	Utzi dauden espazioak aprobetxatzea.	

ID	3. Indarrak/Zer dut gustuko Getxon	3.1. Aukerak	3.2. Getxon gaizki kudeatuta dauden ahalmenak
24	Jendea eta auzoak. Ingurua, kostak. Indarrak: jendea eta auzoak.	Gobela ibaia lehengoratzeko eta herrian eta auzoetan integratutako ingurumena berreskuratzea.	Ibai-korridore berdea.
25	Giza baliabideak eta baliabide naturalak. Getxo marka.		
26	Berdeguneak, pasealekuak eta parkeak.	Tokiko dendak.	Hiri-autobusen zerbitzua ez da sustatzen.
27	Kostaldean egotea, kirol-portua, Ereagako eremua eta bide-uztaia.		Ereagako jolas-eremua.
28	Ingurua, hondartzak, berdeguneen gertutasuna, komunikazio egokia.	Lurzoru-eskasia eta Andra Mari txaletak jartzea.	
29	Hondartzak, parkeak, e.a.	Andra Mari egoki gestionatzea.	
30	Geografia aldetik kokalekua pribilegiatua da.	HAPO bera aukera bat da.	
31	Berdeguneak, hondartzak.	Haztearekin eta hobetzearekin zerikusia duen guztia.	
32	Ekipamendu-eremu handiak eta berdeguneak.	"Zementu" gehiegi ez erabiltzea kontrola dezakegu.	
33	Kultura-aniztasuna eta getxotarren estatusa. Herritarrek parte hartzea eta lege eta dekretuak betetzea.	Kultur Etxearen Getxo Kultura 2012/2016 proiektua.	Turismoa eta zubi esekia, Gizadiaren Ondarea.
34	Neguriko eta Areetako itsasaldea eta Algortako zona batzuk.	Zona horietako eraikinak ondare iraunkorrak dira eta zaindu egin behar dira.	
35	Masifikatu gabeko eremuak; instituzioek ikuskatu gabe egiten diren gauzak, auzoak espontaneoak eta autonomoak direla erakusten dutelako.	Elikadura-burujabetza lortzea, azokak berreskuratzea eta enpresa transnasionalek merkataritza ez kontrolatzea: Artearen moduko merkataritza-guneetan ez inbertitzea, hipermerkatu gehiago ez egitea eta salmenta ibiltaria ez zigortzea, baizik arautzea, dendariekin koordinatuta.	Lantaldea eskusiboa izatea, elikatzeko erabil dezakegun lurra gutxitzea, zonako akuifero garrantzitsua deuseztatzea.
36	Pasealekuak, hondartzak, garbitasuna, lorezaintza. Dentsitate gutxiak (Andra Mari), turismoa (portu zaharra), kiroldegiak...	Eramangarria eta adin guztietako jendearentzako moldatua.	Gazteentzako etxebizitzak jartzea, alde egin ez dezaten.
37	Oso ondo uztartuta daude herriguneko zerbitzuak, espazio zabalak eta birika berdea (Andra Mari). Erraztasun eta erosotasun guztiak dauzkagu, estutasunik gabe.	Bi aldagaiak uztartzen jakitea eta Andra Mari errespetatzea.	Alderdikeria.
38	Getxoko kultura eta nortasuna. Andra Mari eremua (baserriak), zelaia, natura.		
39	Getxon bizitzea zorte ona edukitzea da, baina ez da hiria hiltzen utzi behar, eta horretaz dendariekin asko dakite.		

ID	3. Indarrak/Zer dut gustuko Getxon	3.1. Aukerak	3.2. Getxon gaizki kudeatuta dauden ahalmenak
40	Getxotar guztiek beren bizitza planifikatu ahal izatea.	Ez masifikatzea eta landa- eta natura-eremuak edukitzen jarraitzea.	Udalerrri aberatsa izatea, herritarren bizimoduari esker.
41	Bizi-kalitatea. Kaia eta Zugazarte zoragarriak dira.	Denda txikiez gain beste era bateko enpresak egotea.	Benetako berdeguneak, eta ez etxebizitza atxikien urbanizazioak.
42	Berdeguneak, hiritartu gabeko kostaldea.		
43	Seme-alabak lasai ibiltzen utzi ahal izatea, kezkatu gabe. Metroa gertu dago eta geltoki gehien dauzkan udalerrria da; beraz, ez genuke kotxerik erabili beharko.		Zakurrentzako espazioak jartzea eta arauak betetzen ez dituztenak zigortzea.
44	Auzo batzuen bereizgarriak.		
45	Bizilagunak ditut gustuko; horregatik, oso garrantzitsua da hurrengo belaunaldia herrian geratzea. Paisaia-balioa, lursail ugari egotea, prestakuntza handiko jendea, garraio publikoa.	Bilboko hondartza eta enpresen gizarte-egoitza izatea.	
46			
47	Pasealekuak eta lorategiak. Auzo gehienak ondo gestionatuta daude.	Negozio-zentroak sortzea, betiere ingurumena zainduta, belaunaldi berriek lan egiteko aukera izan dezaten. Plangintzan etxebizitzak eta negozioa kontuan hartzea.	
48	Jendea eta herri-nortasuna (auzoaren arabera). Getxo oraindik onik atera daiteke.		
49	Auzo guztiek nire auzoak daukana eskaintzea: lasaitasuna, segurtasuna, gizarte-kohesioa, zerbitzu publikoak, giza harremanak...		
50		Aukerak: dagoena hobetzea (lan handia da), baina auzoen nortasuna eta daukaten natura-ingurune eskasa akabatu gabe.	Nekazaritza-sektorean gazte-jende askok lan egin dezake.
51	Ezaugarri historikoei eutsi zaie: biztanleek elkar ezagutzen dute eta hartu-emanak dauzkate, asteburuan bada ere eta Getxo lo-hiria izan arren.		
52			
53			

ID	3. Indarrak/Zer dut gustuko Getxon	3.1. Aukerak	3.2. Getxon gaizki kudeatuta dauden ahalmenak
54			
55	Garapen-grinak ukitu ez duena gustatzen zait: kostak, berdegune publikoak, jendea (auzo batzuetakoa). Ustiatu gabeko kokalekua izatea.	Herritar kontzientzia: jendeak eskatzen du bizitzeko hiri bat izatea, elkarbizitzarako espazioak edukitzea eta udal-kudeatzaileekin elkarlanean aritzea.	
56	Pasealekuak, natura, itsasaldeko eta nekazaritzako paisaiak (geratzen direnak)... Getxori dagokio etorkizunean Bilboko birika izatea. Pasealekuak eta aisia-eremuak gero eta politagoak eta erakargarriagoak izatea (bisitariak eta dirua erakartzea, ostalaritzan, merkataritzan, e.a.).		
57	Onera kokalekua da, pribilegiatua delako. Turismoan indargune asko dauzka, baina idiosinkrasiari eutsi behar diogu.		
58	Getxo leku hobezinean dago: hiri-eremuak, berdeguneak eta kostak dauzkagu. Hiru horientzako lekua edukitzea gustatzen zait.	Nire ustez, turismo aldetik interesgarriak diren zona batzuk ez dira behar adina aprobetxatzen. Gazte eta haurrentzako zonak jarri behar dira, Maidagangoaren modukoak.	
59	Landa-eremuaz gozatu ahal izatea. Herri-kulturari eustea: baserriak, berdegune handiak, e.a.		
60	Algortakoa izanda, Algorta bera gustatzen zait gehien.	Gustatuko litzaidake etorkizunean gure seme-alabak Getxon geratzea, beste udalerririk batzuetara ez joan behar izatea, eta guztiek etxebizitza duin bat eskuratzeko aukera edukitzea. Gure udalerririk indartsua da, eta aukera asko daude hori guztia lortzeko.	Udalerririk garatzeko erabaki garrantzitsuen gaineko kontsulta gehiago egin beharko litzazkieke biztanleei.
61	Natura-eremuko bizi-kalitatea, herritarrek gaur egungo Getxo sortzeko izan duten gaitasuna.	Jarduera ekonomikoak garatzea eta jarduera horiek gaur egungo hiri-egiturari integratzea. Gaur egungo gaitasunak berritzea eta aprobetxatzea, gero gehitzeko.	Natura-eremuetako biztanleek, landa-lurrik ezagutzen dituztenez, udalerririk osoko premiak asetzeko moduko konponbideak proposatu ditzakete, geldirik egon gabe.
62	Gutxi gustatzen zait, baina horrela jarraitzea nahi dut. Ez dugu hiria gehiago haztea nahi, berdeguneei eustea nahi dugu. Argi gera dadila Getxo abeltzain- eta nekazari-herririk izan dela.	Getxo dagoen horretan utzi behar da. Etxebizitzak behar badira, erabil ditzagun hutsik dauden 3.000 etxebizitzak, eta moldatu ditzagun hutsik dauden ehunka etxe minusbaliatuentzat.	Politikariek kanpainak egiten dituzte, hitza ematen dute eta gero ez dute betetzen, haien interesen alde egiten dute eta ez herriaren interesen alde.
63	Landa-gunea (Andra Mari), kostako ekosistema, paisaia eta landaretza.	Kostako biotopoa, paisaia babestea, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren gertutasuna (enplegua), tokiko sare ekonomikoa eta ingurumena babestea.	Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren gertutasuna, kostako biotopoa, paisaia eta landa-eremua.

3. AURRETIKO GAJETATIK ATERATAKO EKARPENAK (ahultasunak, mehatxuak eta bestelako ekarpenak)

ID	4. Ahultasunak/Zer ez zait gustatzen Getxon	4.1. Mehatxuak	5. Beste ohar batzuk
1	Gestioa ez da eramangarria, landa-lurzoria desagertzen ari da eta plangintza dentsitate gutxikoa da.	Baliabideak agortzen ari dira.	Prozesuak loteslea izan behar du. Udalerriko berdeguneak kontuan hartu behar dira. Udalerri eta eskualde mugakideekin plan bat egin behar da. Landa-eremua sendotu eta sektore horren aldeko apustua egin behar da, lanpostuak sortzeko, turismoa erakartzeko eta lurralderako aberastasuna lortzeko ahalmena duelako.
2	Puntu beltzak egotea.		Prozesuan norbanakoen arazoak nagusitzea kezkatzen nau.
3	Itsas eremuak deuseztatzen eta babestuta egon beharko luketen eremuetan eraikitzen ari dira.	Estatuak ez du laguntzarik ematen udalerrriak hobetzeko.	Baliabideak zuzen banatu behar dira eta hiriaren ikuspegi zabala eduki behar da. Ez da eraikin edo lursailik erabili gabe utzi behar.
4	Hiria eraikinez betea dago, aparkalekuak falta dira eta daudenak ez dira ondo kudeatzen, espaloiak estuak dira eta espazioak herritarrei beharrezkoak turistek begira antolatzen dira.		
5	Ordenantzak zorrotzak dira.	Eremu paregabe eta berezi batzuk desagertzeko zorian daude eta kontzientzia kolektiboa eta espazio komunak galtzen ari gara.	Partaidetza eta plana Lantaldearen interes komunetan oinarritzea, hau da, banakoen eta elkarten esperientzia, nahi, interes eta kezkek ardatz hartuta interes kolektiboei erantzuneko Plan bat zehazteko erabakiak adostea. Udala (erabakiak eta dirua) denona da. Espazio publiko fisikoaz gain, zehaztu dezagun baita ere herritarren irudizko espazioa.
6	Lanean hasi baino lehen azterlanak egitea. Eraikin batzuk "lardaskeria" hutsak dira. Lurraldea zehazteko ikuspegi orokor eta zeharkakoa behar da.		Getxo hobetzea.
7	Natura-baliabideei eta berdeguneei garrantzi gutxi ematen zaie.	Landa-eremua desagertzen ari da.	Duela 5-10 urteko datuek ez dute balio. Udalak egin al ditzake hutsik dauden etxebizitzak eta lonjak errentan uztea sustatzeko lege berriak? Era horretan, eraikin berriak egiteko proposamenak atzera botako lirateke.
8	Nortasunik gabeko eraikinak egiten dira. Auzo batzuetako hirigintza txar-txarra da.		Herritarrek adituak ez garenez, sen onez joka dezaten eskatzea.
9	Galeako itsasargitik Azkorri aparkalekura doan pasealekua. HAPO berandu berrikustea; horrek eragin du Getxoren garatzeko ahalmena etetea.	Hirigintza-proiektua espero denarekin edo berrikuspenak eragindako itxaropenarekin bat ez etortzea.	Aholkularitza Kontseiluak eta Lantaldeak proposamenak, ideiak eta kezkek aurkezteko bi foro izan behar dute, eta haien esandakoari, legez loteslea ez den arren, kasu batzuetan jaramon egin behar zaio, ahal bezainbeste. Ezinbestekoa da erredakzio-taldearekin, gobernatzen duen alderdiarekin eta, ahal izanez gero, alderdi politiko guztiekin bilera bat egitea (bilera pribatua).

ID	4. Ahultasunak/Zer ez zait gustatzen Getxon	4.1. Mehatxuak	5. Beste ohar batzuk
10			
11	Andra Mariko hazkundera inpersonala da.	Merkataritza eskasa da.	Zein da Lantaldearen maniobra-tartea?
12	Ibilgailuentzako leku asko jartzen da, libre utzi beharrean. Andeatutako hainbat eremu daude, baita erortzeko zorian dauden eraikinak ere.		Etorkizunean, Getxok eduki behar ditu hiri-eremu bat, gaur egungoa, eta landa-eremu bat. Ez da eraikitze hutsagatik eraiki behar.
13			
14	Getxo berriz antolatzeko irizpide materialistak eta epe motzerakoak erabiltzea.		Erronka: dibertsitateari eusteko eta dibertsitate hori integratzeko gai izango den plan bat zehaztea. Ikuspegia: udalerrri berezi bat izatea Euskadin eta munduan.
15	Andra Mariko hirigintza-desordena. Lursailak eta etxebizitzak garestiak dira.		Hirigintza lantzeko modurik onena planoetan oinarritzea da. Bidegorriak interesatzen zaizkit gehien. Animo, prozesua aurrera eramateko.
16	Arkitekturaren historia babestea.		Ustelkeriari eta hirigintzari buruzko informazioa ematea. Neurriak hartzeko eta ustelkeria desagerrarazteko beste tresna batzuk sortzea. Euskararen gaia Lantaldean nola lantzen den azaltzea.
17			
18	Hotel-negoioek oinezkoentzako zonak erabiltzea. Zarata. Telefonía-antena ugartzea, kontrolik gabe.		Hiri-altzariak jartzeko irizpideak ezagutzea. Etxebizitza-premia asetzeko eszenatoki berria kontuan hartzea.
19		Eremu urbanizagarriak biodibertsitatea, paisaia eta etxebizitzak dauka.	Zer zerbitzu ematen dizkigu ingurumenak? Zein da ingurumenaren balioa? Ez dugu daukaguna balioesten galtzen dugun arte. Ekosistema-zerbitzuak erabiltzen dira. Lantaldeak ingurumena ezagutu behar du.
20	Merkataritza- eta enpresa-egitura.	Biztanle-guneetan aparkatzeagatik ordaindu beharra.	Kaleen itxura negargarria da, "kontrolik gabeko pertsonaia" ugari baitaude.
21	Merkataritzak balio erantsi gutxi dauka. Burokrazia administratiboa motela da. Ahultasunak: biztanleen batez besteko adina gero eta handiagoa da eta gazteek aukera gutxi daukate.		Plana geroari begira jarrita egin behar da. 20 urte.
22	Masifikazioa. Eraikin zoragarriak eraistea, eta beste batzuk ahaztea, Galeako dorrea, adibidez.		Espero dut dena aurrez antolatuta ez egotea eta benetan taldeetan esateko daukaguna entzutea. Sentitzen dut, gainera, eragindako zonan bizi den eta parte hartu nahi duen jendeak ezin parte hartzea.
23	Utzitako lursailak, Andra Marin eraikitzea, bidegorriak etetea...		Hiriko zenbait lekutara gurpil-aulkiarekin ezin joatea.

ID	4. Ahultasunak/Zer ez zait gustatzen Getxon	4.1. Mehatxuak	5. Beste ohar batzuk
24	Segurtasun eza. Uholde-arriskua. Eremu zabal batzuk gutxi batzuen eskura bakarrik dauden etxebizitzak egiteko erabili dira.	Poluzio-iturri berriak, adibidez: telefonía-antena eta portuko jardura.	
25	Lo-hiria da eta egitura ekonomikoa ahula da. Lurzorua jardura ekonomikoetarako garestia da.	Gazteak eta, oro har, biztanleak alde egiten ari dira, enplegurik ez dagoelako.	HAPO berrikusteko prozesuak partizipatiboa eta gizatiarra izan behar du. Funtsezkoa da jakitea zer udalerrí-eredu nahi dugun (ikuspegi estrategikoa). HAPO ez da helburua, bitartekoa baizik.
26	Enpresak jartzeko zonak falta dira.		Hirigintza aldetik hobetu beharreko zerbait: kirol-portuaren aurreko begiratokia.
27	Oinezkoentzako leku gehiegi daude eta txandaka aparkatzeko lekuak falta dira. Berdeguneen gaineko politika eta zuhaitzak moztea.		Hirigintza-aprobetxamendua aplikatu behar da aisiarako, kirola egiteko eta abarretarako eremuetan. Etorkizunerako hobetu egin behar dira, zona horietako askok ezin baitiete erantzun biztanle guztien premiei. Adibidez: Fadura, Galea...
28			Prozesuan eraikuntza-enpresa handiak falta dira. Andra Mariko lurzuaren eta lurzoru urbanizaezinaren zer portzentaje dago eraikuntza-enpresa handien esku eta zer portzentaje biztanleen esku?
29	Areetan hormigoi gehiegi dago.	Andra Marin etxebizitzak eraikiz gero, biztanleriak gehiegi egingo du gora.	
30	Auzoak ghetto bihurtzen ari dira, biztanleen erosahaltenaren arabera.		
31	Herri-nortasuna galtzen ari da.		Ikasi eta ekarpenak egin nahi ditut, nire oinarrizko ezaupideak baliatuta.
32	Aparkaleku publiko gutxi eta eraikin handiegi asko dago.	Getxo lo-hiri bihurtzea, etxebizitzekin batera zerbitzuak jartzen ez badira.	
33			Lantaldeak Komunikazio Atalean presentzia gehiago edukitzea.
34	Txaletak perretxikoak bezala ari dira agertzen Getxon. Gobelako ibilguaren eremua ahula da. Kotxe asko daude soberan eta zona batzuetan ez dago kotxeak erabili beharrik.		Espaloiak zaintzea eta zabaltzea.
35		Tentelak bagina bezala tratatzen gaituzten politikari populistak, jaten ematen ez duen zementua, neurrigabeko garbitasuna. Lo-auzo gara: nola biziraungo dugu krisia heltzen denean?, zergatik ez dugu autonomia sustatzen?	Zergatik egon behar dugun ondasun handien zerbitzura? Zergatik daude lantokiak hain urrun? Zergatik xahutzen ditugu energia eta bitartekoak? Hau zergatik ez da lehenago egin?

ID	4. Ahultasunak/Zer ez zait gustatzen Getxon	4.1. Mehatxuak	5. Beste ohar batzuk
36	Elorriko eta Ollarretzeko dentsitatea handitzea. Musika Eskolaren eta Erromoko Kultur Etxearen moduko eraikinak.	HAPOn bera, ondo egiten ez bada.	Lurrak ezin du gehiago eman eta biztanleak ez dira ados jartzen.
37	Kaleak eta parkeak zikin daude, zakurren gorotzak direla eta.	HAPOn erabaki txar bat hartzea.	
38	Getxok munduan duen irudia. Festa eta makroproiektuetarako aurrekontua gutxitzea eta tokiko gai kulturaletarako erabiltzea.	Herri-nortasuna hiltzen ari da.	Nik lo lasai egiten dut, egoki jokatzeko dudala badakidalako. Herri hau zuzentzen duen jendearen moduan jokatuko banu, tiro egingo nioke nire buruari.
39	Udalan jende oso agintzailea dago.	Merkataritza desagertzen bada, herria hil egingo da.	
40	Masifikazioa, helezintasuna, indarrean jartzeko dauden proiektuak... eta handikeria.	Getxo hiriburu batekin alderatu nahia.	Bizitzeko modu guztiei lekua uztea, leku nahikoa daukagulako. Espazio libretzat berdeguneak bakarrik ez hartzea, baita erabilera bera duten gaineko lurak ere.
41	Aparkalekuak eskasak dira eta etxebizitza sozial gutxi dago (jabetzakoak eta errentan hartzekoak).	Getxo hiri turistikoa, Euskadiko Benidorm, dela sinestea.	Etxebizitzaren prezioa dela eta, Getxo adinduentzako hiria da.
42	Ibilgailu gehiegi daude. Kirol-portukoaren moduko merkataritza-guneak ez zaizkit gustatzen.		
43	Ez zait gustatzen bidegorrira joateko kotxea hartu beharra. Berdeguneak galtzeak beldurra ematen du, baina baita etxebizitza eta negozio eskasiak ere. Zaila da bi premia horiek uztartzea.		Lan egiteaz gain seme-alabak dauzkagun emakumeentzat gaueko bederatzia beranduegi da eta, gainera, ordu horretan burua ez daukagu argi. Eskerrik asko parte hartzeko aukera emateagatik.
44	Hiriaren garapenaren oinarria zementua izatea eta tokiko ekonomia galtzea, merkataritza-sektorea kanpora eramatea helburu duen plangintza politikoaren ondorioz.		
45	Ez zait gustatzen jende errespetugabea eta gauzak hausten dituen jendea (batzuk arrazoi ideologikoengatik hausten dituzte gauzak); ezta ostalaritzako ordutegia hain mugatua izatea ere; eta ezta ideologiak defenditzen dituztela esan eta gero beren interesen alde egiten duen jendea ere. Ahultasunak: aparkalekuak eta etxebizitza.	Metroa, merkataritzaren ahulezia, udalerrri mugakideak enpresa bila ibiltzea...	
46			Zer egin daiteke energia aldetik eramangarria den garraioa sustatzeko? Energia-kontsumoa gutxitzen duten etxebizitzak?
47			

ID	4. Ahultasunak/Zer ez zait gustatzen Getxon	4.1. Mehatxuak	5. Beste ohar batzuk
48	Ez zait gustatzen auzoak hainbeste bereiztea. Kasu askotan gazteria bereizketa hori gainditzen ari da.		
49	Ez zaizkit gustatzen etxebizitza-monolaborantza eta horma garaiko banako etxebizitzak. Ez zait gustatzen jendea genero, adin, etnia, jatorri edo egoera ekonomikoagatik bereiztea.		
50		Interes ekonomiko partikular eta politikoak.	Prozesu hau interes politikoekin erabiltzeak kezkatzen nau. Gustatuko litzaidake LPPra ez mugatzeko aukera planteatzea, beste udalerriren batean egin duten moduan.
51	Aipatu arazori aurre egiteko ekimen publikorik ez egotea. Utzikeria instituzionala: erabakiak esku pribatuetan uztea.		
52	Portu zaharrari merezi duen tratua ez ematea.		Udala udalerriaz kezkatzea.
53	Portu zaharrari daukan balioa ez ematea.		Udala herritarrei gerturatzea.
54	Hiritartu egin denez, dena zementua da eta aisiarako leku gutxi daude, bidegorriak ez daude ondo planifikatuta, metroak udalerrira zatitzen du eta telefonía-antena inolako begirunerik gabe jarri dituzte. Gaizki gestionatuta eta administratuta dago. Obrak herritarrentzako baliagarriak diren ala ez kontuan hartu gabe egiten dituzte.		Zenbat kostatu da antzokia? Zer mugikortasun-plan egin da 40 milioi euroko obra horretarako?
55	Eraikin handiak eta jende-oldeak erakartzeko obrak eta jarduerak egiteko obsesioa.		Garrantzitsua iruditzen zait prozesu honetan partaideek elkarrekin hitz egitea, elkar ezagutzea, jakitea gaiek zer planteatzen duten eta zergatik.
56	Herritarrei eguneroko bizitzarako jartzen zaizkien zailtasunak eta trabak: aparkalekua, zirkulazioa, e.a. Eraikin gehiegi eta auzo asko gaizki planteatuta daude. Eraikitzeari utzi behar zaio, dagoena berritu beharra dago, datozen belaunaldientzat; eraikin eta arkitektura-espazio batzuk erabat utzita daude eta bisitariarentzat erakargarriak izan daitezke: Begoñako lurmuturra, Galeako gotorlekua eta zahartzen uzten diren beste hainbat eraikin.	Andra Marin geratzen diren berdeguneak interes ekonomikoengatik deuseztatzea. Nire iritziz, Udalak tinko defendatu beharko lituzke.	Ez dut ulertzen zergatik egingo den milioika euro kostako den antzokia eta aurrena ez den konpontzen lehen aipatu ondarea. Oso interesgarria irudituko litzaidake Ereaga eta Arrigunaga lotzeko pasealeku bat egitea. Oso haserre nago Algortan bideak ito egin dituztelako (Trinitarioen zona, Abasota, San Martin...). Trinitarioetatik San Inazio elizara heltzeko 10 minutu baino gehiago behar dira.
57		Nire iritziz, oparoaldian proiektu oso handinahitsuak gauzatu dira (adibidez: Santa Eugeniako Kultur Etxea) eta beharbada orain ez datoz bat bizi dugun garaiarekin.	

ID	4. Ahultasunak/Zer ez zait gustatzen Getxon	4.1. Mehatxuak	5. Beste ohar batzuk
58	Ez zait gustatzen animalientzako espaziorik ez egotea.	Ez zait gustatzen Getxoko biztanleriaren batez besteko adina etengabe igotzen ikustea eta gazteentzako zona eskuragarriarik ez egotea; Getxon jaio ginen eta orain gazteak garen guztiak Leioara edo Sopelara joateko arriskua dago. Auzo batzuetan gizarte-mailen arteko aldeak gero eta handiagoak dira eta gerta daiteke integratzen ez diren biztanleguneak sortzea.	Etorkinen portzentajea handia da dagoeneko. Lantaldeko 70 kideen artean ez dago etorkin horien ordezkariarik. Ezinbestekoa da Getxo guztiontzat garatzea eta errealitate guztien integrazioa bermatzea.
59	Gauza batzuetarako, garraibideetarako, adibidez, Goierriko zonak kontuan ez hartzea.	Zementua, baserri eustea, itsaslabarrak eta kulturarekin zerikusia duen guztia.	
60	Oro har, Getxo gustuko dut. Etorkizuneko ahulezietako bat segurtasun eza izan daiteke, dagoeneko hasi baita nabaritzen.	Gaizki gestionatutako hirigintza kontrolatzen ez bada, Getxo mehatxupean egongo da, oso-osorik.	Nire iritziz, txanda bakoitzean gai eta galdera egokiak sortzen joango dira. Prozesu motela eta konplikatua izango dela iruditzen zait.
61	Ez daukat kezarik.	Mehatxu nagusia da Andra Mariko zonan egin beharrekoaren gainean muturreko iritziak sortzea. Getxo garatzen jarraitzeko libre dagoen eremu nagusia da, baina baita geratzen zaigun landa-eremu bakarra ere; horregatik, kontuz tratatu behar da.	
62	Dena gustatzen zait. Ez dut aldaketarik nahi.	Mehatxu nagusia Udalak HAPO barregarri honekin planteatu duena da.	Animalia-zalea naiz eta, haien ordezkari gisa, ez zait Udalaren jarrera gustatzen. Iruditzen zait jarrera hori goitik behera aldatu beharra dagoela eta animalientzako aterpetxe bat behar dela; aterpetxe hori Udalak eta animaliak babesteko herriko elkarteak gestionatu beharko luke. Gatu-koloniak kudeatzea eta programa on bat egitea, Europako beste herrialde batzuetan bezala. Koloniak kontrolatzea (CES), hartzea, antzutzeta eta askatzea; herriko hainbat gunez ari naiz, katuentzat habitat natural diren gunez.
63	Gaur egungo hazkunde sozioekonomikoaren eredu, etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurri gabe eraikitzearen mitoa, deserrotzea, LPP eta gaur egungo HAPO.	LPP eta etorkizuneko HAPO, baldin eta herriak ez badu bermatzen; eta inosatzen saiatzen diren eredu ekonomiko kapitalista basatia.	Partaidetza-espazio hau itxi ondoren prozesua auzoetara eramatea, han eragiten dieten neurriez eztabaida egin dezaten eta herri-konsulta lotesleen bitartez egokienak iruditzen zaizkien proposamenak aukera ditzaten, auzoan bertan sortutakoak barne.